Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko abuztuaren 12a, astelehena — 152 — Lunes, a 12 de agosto de 2019

HERNANIKO UDALA

Hernaniko Udalak Araututako Udal Hilerriko Araudiaren aldaketaren behin betiko onarpena.

Hernaniko Udalak, 2019ko maiatzaren 21ean egindako osoko bilkuran erabaki zuen, besteak beste, Hernaniko Udal Hilerriko Araudiaren aldaketa hastapenez onartzea. Orain erabaki hori behin betiko bihurtu da.

Aipatutako Arautegia 30 laneguneko epean, jendaurrean jarri zen eta ez denez aurkeztu inolako erreklamaziorik edo alegaziorik, Arautegia behin betiko izaeraz onartutzat ematen da.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluak xedetzen duenaren arabera, araudiaren testu osoa argitaratzen da, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan jasota datorren epea bukatzen denean sartuko da indarrean araudia.

Erabaki honena urka, administrazio bidean irmoa baita, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Auzitarako Sailean, argitaa eman eta hurrengo bi hilabeteko epean.

HERNANIKO UDAL HILERRIKO ARAUTEGIA

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENENGO KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

1. artikulua. Xedea eta arautegia.

Hernaniko Elizatxo Auzoan dagoen udal hilerria udalaren zerbitzu publiko bati loturiko jabari publikoko ondasuna da, eta Hernaniko Udala da haren titularra. Hori dela-eta, berari dagokio hilerria administratzea, zaintzea eta zuzentzea. Dena den, beste administrazio publiko batzuek eta agintaritza judizialak zenbait eskumen izan ditzakete arlo horretan.

Araudi honen xedea da Hernaniko Udal Hilerriaren zerbitzu orokorrak eta, era berean, hilerriaren zerbitzua emateko modua, era guztietako lurperatze-unitateen esleipena, instalazioen eta zerbitzu orokorren mantentze-lanak, segurtasuna eta obren exekuzioa eta gainerako zerbitzuak arautzea.

Honako hauek arautuko dute hilerriaren araubide juridikoa eta administrazioa: Jabari edo/eta zerbitzu publikoko ondasunei buruzko araudiak, Gorpuen Osasun-Zaintzari buruzko araudiak, Udal Ordenantza Fiskalek eta Araudi honek.

2. artikulua. Instalazioak.

Hilerria hura eraikitzeko onartu zen planoan (ondorengo aldaketak eta guzti) ezarritako moduan dago banatua, eta honako instalazio hauek ditu:

AYUNTAMIENTO DE HERNANI

Aprobación definitiva de la modificación del Reglamento del Funcionamiento del Cementerio Municipal de Hernani.

El Ayuntamiento en sesión plenaria del 21 de mayo de 2019, adoptó, en otros, aprobar inicialmente la modificiación del Reglamento del funcionamiento del cementerio de Hernani.

Dicho Reglamento fue sometido a información pública durante 30 días hábiles y al no haber sido presentada alegación o reclamación alguna, el citado ha devenido definitivo.

De conformidad a lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local se procede a la publicación integra de la referida, que entra en vigor una vez transcurrido el plazo previsto en el artículo 65.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podría interponerse en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la publicación, Recurso Contencioso-Administrativo ante el tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

REGLAMENTO DEL FUNCIONAMIENTO DEL CEMENTERIO MUNICIPAL DE HERNANI

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

CAPÍTULO PRIMERO. NORMAS GENERALES

Artículo 1. Objeto y normativa.

El cementerio Municipal de Hernani, ubicado en Elizatxo Auzoa, es un bien de dominio público afecto a un servicio público, cuyo titular es el Ayuntamiento de Hernani, correspondiéndole su administración, cuidado y dirección, sin perjuicio de las competencias que correspondan a otras administraciones públicas así como a la autoridad judicial.

El presente Reglamento tiene por objeto la regulación de los servicios generales del Cementerio Municipal de Hernani, así como la forma de prestación del Servicio del Cementerio, adjudicación de unidades de enterramiento en sus distintas formas, mantenimiento de las instalaciones y servicios generales, seguridad y ejecución de obras y demás servicios.

El régimen jurídico y la administración del cementerio se regirá por las normas relativas a los bienes de carácter de dominio y/o servicio público, la normativa en materia de Sanidad y Policía Mortuoria, las Ordenanzas Fiscales Municipales y el presente Reglamento.

Artículo 2. Instalaciones.

El Cementerio queda dividido conforme a las previsiones establecidas en el plano aprobado para su construcción junto con sus modificaciones, y consta de las siguientes instalaciones:

EK\CV GAO-I-2019-05349

— Gorpu bakar baterako horma-hilobiak.

— Bi edo sei gorpuren gorpuzkietarako horma-hilobiak.

— Familia unitate bakar baten titulartasuneko panteoiak.

— Famili unitate bat baino gehiagoren titulartasuneko panteoiak (apaleka).

— Hezurtegi orokorra.

— Kolunbarioa.

— Gerra Zibilean hildako eta fusilatuentzako guneak.

— Udal instalazioak:

Hileta-zeremonietarako balio anitzeko gune komuna.

Bulegoa.

Komunak.

Aldagela.

Lanabesak gordetzeko biltegia.

Udalak instalazioak handitu, txikitu, aldatu eta eraiki ahal izango ditu zerbitzua behar berrietara egokitzeko.

Hileta-zeremonietarako gune komuna esklusiboki erabili ahal izateko (eskaintzen diren gainerako zerbitzuak erabili gabe, hau da, hilobitik ateratzeak, hilobian sartzeak) dagokion udal tasa ordaindu beharko da, eta beharrezkoa izango da ekitaldiaren aurretik eskaera egitea.

3. artikulua. Eginkizunak.

Hilerria administratu, zaindu eta zuzentzeko orduan, hauek dira Hernaniko Udalari dagozkion eginkizunak:

— Hilerria eta hilobi-eraikinak, zerbitzuak eta instalazioak antolatu, zaindu eta egokitzea.

— Herritarrek hilerrian edozein lan edo instalazio egin nahi izanez gero, horretarako baimena eman eta zuzendaritza zein ikuskatze lana egitea.

— Lurperatze-eskubideak ematea, onartzea, aldatzea, bizien arteko edo heriotzaren ondoriozko eskualdaketak egitea, lurperatze-eskubideen iraungipena deklaratzea eta eskubide horien ordezkariak izendatzea eta haiei dagozkien tituluak izapidetzea eta egitea.

— Dagokion Ordenantza Fiskalean ezartzen diren eskubideak eta tasak jasotzea.

— Emandako edo gerora ematen diren apaindura, sanitate eta higiene neurriak betetzea.

— Hilobiak, horma-hilobiak, panteoiak eta kolunbarioak esleitzea, dagokien lurperatze-eskubidearen titulua emanez.

— Gorpuak eta gorpuzkiak hilobiratzea eta hilobitik ateratzea.

— Gorpuzkiak biltzea eta murriztea.

— Hilarriak mugitzea (udal langileek).

— Hilerria eta bertako hilobi-eraikinak zaintzea eta garbitzea.

— Hilerriko barne-araudiari lotutako beste edozein eginkizun.

4. artikulua. Administrazio eginkizunak atxikitzea.

Zerbitzu Publikoen Batzorde Informatiboak edo haren funtzioak betetzen dituenak, hilerria bere ardurapean izango du, udal-zerbitzu den aldetik, eta zerbitzu publiko hori hobeto administratzeko eta emateko egokitzat jotzen dituen proposamenak egin ahal izango ditu.

— Nichos individuales.

— Nicho de restos cadavéricos para dos o seis personas.

— Panteones titularidad de una única unidad familiar.

Panteones titularidad de distintas unidades familiares, (por baldas).

— Osario común.

— Columbario.

— Espacios dedicados a los muertos y fusilados durante la Guerra Civil.

— Dependencias municipales:

Lugar común polivalente para ceremonias funerarias.

Oficina.

Aseos.

Vestuario.

Almacén de herramientas.

El Ayuntamiento podrá ampliar, reducir, modificar así como crear nuevas dependencias con el fin de adaptar el servicio a las nuevas necesidades.

La utilización exclusiva (sin la posterior utilización del resto de los servicios que se ofrecen: exhumar, depositar) del lugar común para ceremonias conllevará el abono de la correspondiente tasa municipal y requerirá de una solicitud a realizarse de forma previa al acto.

Artículo 3. Funciones.

En el ejercicio de la administración, cuidado y dirección del Cementerio, le corresponden al Ayuntamiento de Hernani las siguientes competencias:

— La organización, conservación y acondicionamiento del cementerio así como de las construcciones funerarias, de sus servicios e instalaciones.

— La autorización a particulares para la realización en el cementerio de cualquier tipo de obra o instalaciones, así como su dirección e inspección.

— La concesión, reconocimiento y modificación de los derechos funerarios, transmisión intervivos o mortis causa, la eventual declaración de caducidad de los derechos funerarios y la designación de sus representantes y la tramitación y expedición de los títulos referentes a los mismos.

— La percepción de los derechos y tasas que se establezcan en la correspondiente Ordenanza Fiscal.

— El cumplimiento de las medidas de ornamentación, sanitarias e higiénicas dictadas o que se dicten en un futuro.

— La asignación de sepulturas, nichos, panteones, y columbarios mediante la expedición del correspondiente título de derecho funerario.

— La inhumación y exhumación de cadáveres y restos cadavéricos.

— La reducción de restos cadavéricos.

— El movimiento de lápidas realizadas por el personal del Ayuntamiento.

— La conservación y limpieza general del cementerio y de sus construcciones funerarias.

— Cualesquiera otra cuestión que afecte a su régimen interior.

Artículo 4. Adscripción de funciones administrativas.

La Comisión Informativa de Servicios Públicos o la que desarrolle sus funciones tendrá a su cargo, como servicio municipal, el Cementerio, pudiendo formular las propuestas que se estimen convenientes para la mejor administración y prestación de dicho servicio público.

EK\CV GAO-I-2019-05349

5. artikulua. Ideologia eta erlijio askatasuna.

Udal hilerrietan ideologia eta erlijio askatasunarekiko errespetu handia izan behar da.

Askatasun hori bermatzearren:

a) Udala akonfesionala izango da, eta bere instalazioetan ez du erlijio-sinbolorik erabiliko.

b) Udalak baimena emango du erabilera pribatiboko elementuetan erlijio sinboloak, epitafioak, oroigarriak, ikurrak eta gainerako sinboloak erabiltzeko.

c) Udalak, hilerriak berritu edo handitzeko garaian, sinismen ezberdinetako hileta-erabilerak hartuko ditu kontuan.

6. artikulua. Bizikidetza arauak.

Udalaren zeregina izango da hilerrian ordena mantentzea eta halako leku bati zor zaion begirunea bermatzea. Horretarako, arau hauek beteko dira:

— Hilerria jendearentzat zabalik egongo da udal-organo eskudunak erabakitako orduetan.

— Bisitariek uneoro jokatuko dute hilerriari zor zaion begirunez; hala gertatzen ez bada, Udalak eskura dituen neurri legalak har ditzake arau hori hausten dutenak hilerritik kanporatzeko.

— Udalak hilerria zainduko du, baina hilobietan lapurretarik edo kalterik gertatzen baldin bada, ez du erantzukizunik izango.

Era berean, gorpuzkiak hilobitik ateratzeko unean hilarriak edo plakak hausten badira, hilerriko langileak ez dira horren erantzule izango.

— Hilerriaren barruan, korridoreetatik soilik ibili ahal izango da, hilobietarako guneetan sartu gabe. Horrez gain, ibilgailuak ezin izango dira sartu, ezinduek erabiltzen dituztenak eta instalakuntzen ohiko funtzionamendurako beharrezkoak direnak izan ezik; azken horiek udal-arduradunaren baimena beharko dute. Horregatik, hilerriko mantentze eta berritze lanetarako sartu beharreko ibilgailuak hilerriko udal arduradunaren lanaldiaren barruan bakarrik sartu ahal izango dira, hots, 08:00etatik 13:30era.

— Debekatuta dago hilerriaren barruan edozein merkataritza-jarduera egitea. Hilerritik kanpo, salmenta ibiltariari buruzko udal-araudia aplikatuko da.

— Ez da onartuko hilerrian janaria edo/eta edaria daukaten pertsonarik egotea eta ezingo da bertan lo egin edo eskean ibili.

— Hilobietako obrak eta inskripzioak bat etorriko dira Udalak finkatutako baldintza estetikoekin eta hilerriari zor zaion errespetuarekin.

— Debekatuta dago hilobiak giltzarrapoekin edo antzeko beste edozein osagairekin ixtea, eta orobat hilobietara sartzea beharrezko baimen administratiborik eta/edo sanitariorik gabe.

— Hilerriari atxikitako intimitate-eskubidea eta begirunea bermatzeko, ezin izango da lurperatze unitate eta instalazioen ez eta hilerriaren ikuspegi orokor edo partzialen argazkirik, erreportajerik, marrazkirik edota margolanik egin, Udalak aldez aurretik espresuki baimen idatzirik eman gabe.

— Debekatuta dago hilerrian animaliak sartzea, ezinduek erabiltzen dituztenak izan ezik.

Arau hauek eta hilerriari lotutako bestelako araudi edo ohar jendaurrean ikusgai jarriko dira, hilerriaren sarrerako iragarkitaulan.

Artículo 5. Libertad ideológica y religiosa.

Los cementerios Municipales son lugares donde debe extremarse el respeto a la libertad ideológica y religiosa.

El Ayuntamiento para garantizar esas libertades:

a) Mantendrá su aconfesionalidad absteniéndose de utilizar símbolo religioso alguno en sus instalaciones.

b) Permitirá la utilización de símbolos religiosos, epitafios, recordatorios, emblemas y demás símbolos en los elementos de uso privativo.

c) Tendrá en cuenta los usos funerarios de las diferentes creencias con ocasión de la reforma o ampliación de los cementerios.

Artículo 6. Normas de convivencia.

El Ayuntamiento velará por el mantenimiento del orden en el recinto, así como la exigencia del respeto adecuado a su función, mediante el cumplimiento de las siguientes normas:

— El recinto del Cementerio estará abierto al público según determine el órgano competente del Ayuntamiento.

— Las personas visitantes se comportarán en todo momento con el respeto adecuado al recinto, pudiendo el Ayuntamiento adoptar las medidas legales a su alcance para ordenar el desalojo del recinto de quienes incumplieran esta norma.

— El Ayuntamiento asegurará la vigilancia general de los recintos, si bien no será responsable de los robos o deterioros que pudieran tener lugar en las unidades de enterramiento.

Asimismo, el personal del cementerio no se hará responsable de la ruptura de lapidas o placas en el momento de efectuar cualquier desenterramiento.

— Dentro del cementerio debe transitarse exclusivamente por los pasillos destinados a tal fin, evitando invadir las zonas destinadas a las sepulturas y quedando prohibido el acceso y uso de todo tipo de vehículos, salvo aquellos utilizados por minusválidos para su desplazamiento así como los necesarios para el funcionamiento normal de las instalaciones, necesitando estos últimos previa autorización del responsable municipal. Por todo ello, solo se permitirá el acceso de vehículos para trabajos de mantenimiento y obras de reforma dentro del horario laboral de responsable municipal del cementerio desde las 08:00 a las 13:30 horas.

— Se prohíbe cualquier actividad comercial dentro del recinto del cementerio. Fuera de él será de aplicación la normativa municipal de venta ambulante.

— Dentro del recinto no se permitirá la presencia de personas con comida y/o bebidas, ni la pernocta ni la mendicidad.

— Las obras e inscripciones funerarias deberán estar en consonancia con el respeto debido al recinto y a las condiciones estéticas que determine el Ayuntamiento.

— Se prohíbe el cerramiento de sepulturas mediante candados o cualquier otro elemento de cierre similar, así como el acceso al interior de las mismas por particulares sin la autorización administrativa y/o sanitaria oportuna.

— Con el fin de preservar el derecho a la intimidad y respeto inherentes al recinto, no se podrán obtener imágenes, dibujos y/o pinturas de las unidades de enterramiento ni de las instalaciones, ni vistas generales o parciales del recinto, salvo autorización expresa y escrita del Ayuntamiento.

— Se prohíbe el acceso de animales al recinto, no afectando dicha prohibición a los utilizados por personas con discapacidad para su de ambulación.

Dichas normas y cualesquiera otra reglamentación o anuncio que afecte al recinto serán expuestos al público en un tablón de anuncios colocado a la entrada al cementerio.

EK\CV GAO-I-2019-05349

BIGARREN KAPITULUA. LANGILEAK

7. artikulua.

Udalak behar diren langileak izango ditu hilerria zuzentzeko, kontserbatzeko, zaintzeko eta zerbitzuak emateko. Zeregin horiek legez izendatutako funtzionarioek, behar bezala kontratatutako langileek edo kanpoko zerbitzuetako langileek beteko dituzte.

8. artikulua.

Langileek Udalak erabakitako bereizgarriak eta jantziak erabiliko dituzte eta Udalak agindutako laneko segurtasunari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia beteko dute.

Uneoro saiatuko dira hilerria bisitatzen dutenei alferrikako eragozpenik ez sortzen, eta gorpuak ahalik eta begirune handienarekin hilobiratu, hilobitik atera eta lekuz aldatuko dituzte.

Aurkezten dizkieten kexak eta erreklamazioak entzun, jakinarazi eta, ahal den neurrian, konponduko dituzte, betiere begirunez.

Debekatuta dago hilerriko langileek edo beste pertsona batzuek zerbitzu edo enpresa jakin batzuen aldeko propaganda egitea.

Debekatuta dago, era berean, udal langileek dirua jasotzea beren lanpostuari atxikitako zerbitzuak egiteagatik.

9. artikulua.

Udal lurperatzaileak, Hilerriko zerbitzuaren arduraduna den aldetik, gorpuak hilobiratzeari, hilobitik ateratzeari, lekuz aldatzeari eta abarri buruz indarrean dauden arauak eta legeak eta orobat goragokoen aginduak bete eta betearazi beharko ditu.

Hauek dira, halaber, lurperatzailearen zereginak:

— Hilerria eta bertako instalazioak garbitzea, hilerriko apaingarriak txukuntzea eta Udalak jarritako landareak eta zuhaitzak zaintzea.

— Hilerrian dauden gauza guztiak zaintzea, bai hilobien apaingarriak, bai zerbitzua emateko beharrezkoak diren osagaiak, lanabesak edo erremintak.

— Nolanahi ere, Udalaren dagokion sailak betetako lurperatze-orria aurkezteko eskatzea, eta zerbitzua egin ondoren, orrian bere adostasuna jasota, udalaren sail horri berari itzuli eta orriaren hirugarren kopia hilerrian bertan dagoen bulegoan artxibatzea. Hori egitea derrigorrezkoa izango da, bestela ezingo da hilobiratzerik edo dena delako zerbitzurik egin.

— Hilobiratzeko edo hilobitik ateratzeko, eta hilobiak itxi edo estaltzeko beharrezkoak diren lanak egitea.

— Hilobiak hustu eta garbitzetik jasotako arropa, hiletatresna eta bestelako gauzak suntsitzea.

— Hilerriko giltza gordetzea, alkateak besterik agintzen ez badu behintzat.

— Hilerriko ordena egokia bermatzea, eta lekuari zor zaion begirunea asaldatzen duten pertsonak eta jarduerak saihestea.

— Alkateak bere eskumenaren arabera ematen dituen agindu bereziak betetzea.

— Agintzen zaion beste edozein eginkizun egitea, baldin eta bere lanpostuaren zereginekin zerikusia badu.

CAPÍTULO SEGUNDO. DEL PERSONAL

Artículo 7.

Para el gobierno, conservación, guarda y prestación de los servicios del Cementerio, el Ayuntamiento dispondrá del personal preciso. Dichos trabajos serán desempeñados por funcionarios de plantilla en virtud de nombramiento legal, personal contratado en forma autorizada o bien a través de servicios externos.

Artículo 8.

El personal utilizará las insignias y prendas que el Ayuntamiento acuerde así como cumplirá la normativa en materia de salud laboral y prevención de riesgos laborales decretada por el Ayuntamiento.

Procurará en todo momento no causar molestias innecesarias a quienes visiten el cementerio, realizando los trabajos de inhumación, exhumación, traslados etc., con el máximo respeto.

Atenderá, dará cuenta y resolverá, en lo posible, las quejas y reclamaciones que se pudieran formular, guardando siempre la debida consideración.

Se prohíbe que los empleados del cementerio u otras personas realicen propaganda en favor de determinados servicios o empresas.

Queda igualmente prohibido que el personal municipal cobre cantidad alguna por la prestación de los servicios inherentes a su cargo.

Artículo 9.

Al Sepulturero municipal, como responsable del servicio del Cementerio, le incumbe cumplir y hacer cumplir lo dispuesto en este Reglamento y en las leyes vigentes acerca de la inhumación, exhumación, traslado de cadáveres, etc., y cuantas órdenes emanen de la superioridad.

Son igualmente funciones del o de la sepulturera:

— Cuidar del aseo del Cementerio y de todas sus dependencias, de la ornamentación general del recinto así como de la conservación de plantas y arbolado colocados a instancia municipal.

— Custodiar cuantos objetos existan en el lugar, así de la ornamentación de las sepulturas, y de los elementos, enseres o herramientas necesarias para su servicio.

— En todo caso, deberá recabar la presentación de la papeleta de enterramiento debidamente cumplimentada por la sección correspondiente del Ayuntamiento y devolverla con su conformidad después de efectuado el servicio a la propia sección municipal, y archivar el «triplicado» en las oficinas del propio cementerio, requisito indispensable sin el que en modo podrá proceder a ninguna inhumación o servicio correspondiente.

— Realizar las operaciones materiales necesarias para la inhumación o exhumación en su caso, y cierre o cubrimiento de las sepulturas.

— Destrucción de ropas, utensilios fúnebres y enseres procedentes de la evacuación y limpieza de sepultura.

— Conservar la llave del Cementerio en cuanto la Alcaldía no dispusiere otra cosa.

— Velar por el buen orden dentro del recinto, evitando la presencia de personas o la realización de actividades que conlleven un perjuicio al debido respeto al lugar.

— Ejecutar las instrucciones especiales emanadas desde Alcaldía dentro de su competencia.

— Cualesquiera otra que le sea encomendada en relación a las funciones de su puesto de trabajo.

EK\CV GAO-I-2019-05349

HIRUGARREN KAPITULUA. ERROLDA PUBLIKOA

10. artikulua.

Errolda bana eratuko da, lurperatze-unitateak eta lurperatze-eskubideak zein egiten diren zerbitzuak jasotzeko.

Beharrezko neurriak hartuko dira datuen segurtasuna bermatzeko, eta datuak aldatzea, galtzea eta baimenik gabe tratatzea edo eskuratzea galarazteko.

11. artikulua. Lurperatze-eskubideen errolda.

— Panteoien errolda orokorra.

— Apaleka esleitutako panteoien errolda orokorra.

— Horma-hilobien errolda orokorra.

— Kolunbarioen errolda orokorra.

Lurperatze-unitateei eta lurperatze-eskubideei dagokienez, datu hauek jasoko dira:

— Panteoi, horma-hilobi edo hezurtegiaren identifikazioa.

— Lurperatze-eskubidea eman zeneko data eta haren indarraldia.

— Titularraren edo hala badagokio haren ordezkariaren izen-abizenak eta helbidea.

— Bizien arteko edo heriotzaren ondoriozko jarraikako eskualdaketak.

— Egindako hilobiratze, hilobitik ateratze edo lekuz aldatzeak; berariaz aipatuko da gorpua edo gorpuzkiak norenak ziren (izen-abizenak eta sexua) eta ekintzok noiz gauzatu ziren.

— Mugak eta debekuak, halakorik balego.

— Lurperatze-unitateari eragiten dion beste edozer.

12. artikulua. Lurperatze-zerbitzuen erregistroa.

— Hilobiratzea.

— Gorpuak hilobitik ateratzea eta lekuz aldatzea.

— Gorpuzkiak murriztea.

— Jakinarazpenen sarrera eta irteera.

— Zerbitzurako beharrezko jotzen den beste zernahi.

Eta datu hauek jasoko dira:

a) Hilobiratutako edo hilobitik ateratako gorpuaren izen-abizenak.

b) Zerbitzua egin duen ehorzketa-enpresaren izena, hala badagokio.

c) Zerbitzua noiz eman zen.

d) Hilobiratzearen lekua, edo hilobitik ateratako gorpuzkien norakoa.

e) Gorpuzkiak hilobitik ateratzeko zerbitzuaren arrazoia.

II. TITULUA

ZERBITZUAK

I. KAPITULUA. HILOBIRATZEA ETA BERRIZ HILOBIRATZEA

13. artikulua.

1. Hilobiratzeak instalazio hauetakoren batean egin daitezke:

— Gorpu bakar baterako horma-hilobietan.

— Bi edo sei gorpuen gorpuzkietarako horma-hilobietan.

CAPÍTULO TERCERO. REGISTROS PÚBLICOS

Artículo 10.

Existirán sendos Registros de las unidades de enterramiento y derechos funerarios asociados, así como de los servicios que se realicen.

Se adoptarán las medidas necesarias para garantizar la seguridad de los datos y enviar su alteración, pérdida y tratamiento o acceso no autorizado.

Artículo 11. Registro de derechos funerarios.

— Registro General de Panteones.

— Registro General de Panteones adjudicados por baldas.

— Registro General de Nichos.

— Registro General de Columbarios.

En relación a las unidades de enterramiento y derechos funerarios existentes se incluirán los siguientes datos:

— Identificación del panteón, nicho u osario.

— Fecha de concesión del derecho funerario y plazo de vigencia.

— Identificación y domicilio del titular, en su caso del representante.

— Sucesivas transmisiones ínter vivos o mortis causa.

— Inhumaciones, exhumaciones o traslados que hubiere lugar, con la identificación y sexo de las personas a cuyos cadáveres o restos se refiriesen y fecha de las actuaciones.

— Limitaciones y prohibiciones, si las hubiere.

— Cualquier otra incidencia que afecte a la unidad de enterramiento.

Artículo 12. Registro de servicios funerarios.

— De inhumaciones.

— De exhumaciones y traslados.

— Reducción de restos.

— De entrada y salida de comunicaciones.

— Cualquier otra incidencia que se estime necesaria para el servicio.

Y se incluirán los datos siguientes:

a) Identificación de la persona inhumada o del cadáver exhumado.

b) Empresa funeraria que ha prestado los servicios, si procede.

c) Fecha de prestación del servicio.

d) Identificación del lugar de inhumación o destino de los restos exhumados.

e) Causa del servicio de exhumación de restos.

TÍTULO II

DE LOS SERVICIOS

CAPÍTULO I. LA INHUMACIÓN Y REINHUMACIÓN

Artículo 13.

1. Las inhumaciones podrán tener lugar en alguna de las siguientes instalaciones:

— Nichos individuales.

— Nicho de restos cadavéricos para dos o seis personas.

EK\CV GAO-I-2019-05349

— Familia unitate bakar baten titulartasuneko panteoietan.

— Famili unitate bat baino gehiagoren titulartasuneko panteoietan (apaleka).

— Hezurtegi orokorrean.

— Kolunbarioan.

2. Panteoietan hurrenez hurren zenbat gorpu lurpera daitezkeen zehazterakoan, hilobiaren edukiera bera izango da muga bakarra.

14. artikulua. Baimen eskaerak.

— Gorpuen hilobiraketak egiteko udalaren baimena beharko da, eta hala behar den kasuetan, dagozkion osasun eta epai agintariena ere bai, eta hilobiratze eskubidearen titularren edo haren oinordekoen eskariz.

— Hilobiratzeak unean-unean indarrean dagoen araudi tekniko sanitarioa betez egingo dira.

— Gorpuak hilobiratzeko ezinbestekoa izango da heriotzaren ondorengo arauzko behaketa-epea igarotzea, eta epea igaro dela justifikatzeko, Epaitegi eskudunak emango du lurperatzeko agindua.

— Gorpua dakarren ehorzketa-enpresak edo pertsonak hilerriko zerbitzua ematen duen arduradunari beharrezkoa den dokumentazioa emango dio gorpua hilobiratu ahal izateko.

— Udalaren baimena lortzeko beharrezkoa izango da ondoko agiri hauek aurkeztea:

* Eskaera-orri normalizatua.

* Lurperatzeko lizentzia, dagokion epaitegiak emana.

* Gorpua beste udalerriren batetik ekarria bada, Osakidetzaren baimena.

* Heriotza ez naturaleko kasuetan udal epailearen edo eskumena duenaren baimena.

* Dagokion ordenantza fiskalean ezarritako lurperatze-eskubideen ordain-agiria.

15. artikulua.

Gorpu orori emango zaio lurra, baldin eta izapide legalak bete badira, Udal Ordenantza Fiskalak ezarritako lurperatze-eskubideak ordaindu badira eta jarraian adierazitako baldintzaren bat betetzen badu:

— Hernanin jaioa izatea.

— Heriotza gertatu denean Hernanin erroldatua egotea.

— Aurreko ataletan deskribatutako egoeraren batean dauden pertsonen lehen mailako aurreko edo ondorengo zuzena izatea.

— Udal agintariek bidezko jotzen dituen bestelako baldintzak.

16. artikulua. Salbuetsiak.

Udalaren konturakoak izango dira hilobiratzeagatik ordaindu beharreko kanona ordaintzeko diru baliabiderik ez duten Hernanin jaio edo hildakoen hilobiratzea, baldin eta benetan egiaztatzen bada Hernanin jaioak edo hilak direla.

17. artikulua.

Udalak urtero finkatuko ditu hilobiratzeak egiteko orduak, zerbitzua hobeto emateko helburuz. Gorpuaren arduradunak zerbitzuko arduradunari galdetuko dio lurperatzeko ordu zehatza zein den, zerbitzua ohiko moduan eman ahal izateko. Nolanahi ere, ordutegi honetan lurperatuko dira gorpuak:

— Astelehenetik igandera: 9:00etatik 13:30era.

— Panteones titularidad de una única unidad familiar.

— Panteones titularidad de distintas unidades familiares, (por baldas).

— Osario común.

— Columbario.

2. El número de inhumaciones sucesivas en los panteones no estará limitado por otra causa que su capacidad.

Artículo 14. De la solicitud de autorizaciones.

— Toda inhumación se realizará con la autorización del Ayuntamiento y la de las autoridades sanitarias y judiciales correspondientes en los casos en que sea necesario, y a instancia de cualquiera de los titulares del derecho funerario.o de sus herederos.

— Las inhumaciones se realizarán respetando la normativa técnico sanitaria vigente en cada momento.

— Será requisito indispensable para proceder a la inhumación, haber transcurrido el plazo reglamentario de observación desde el fallecimiento, circunstancia que se justificará con la orden de enterramiento que autorice el Juzgado competente.

— La empresa funeraria o persona física que presente el cadáver entregará al responsable de la prestación del servicio del cementerio la documentación requerida para poder efectuar la inhumación.

— Para la obtención de la autorización del Ayuntamiento, será necesaria la presentación de la siguiente documentación:

* Cumplimentación del impreso de solicitud normalizado.

* Licencia para dar sepultura expedida por el Juzgado correspondiente.

* Si el cadáver es trasladado desde otro municipio, el oportuno permiso de Osakidetza.

* En los casos de muerte no natural autorización del Juez municipal o del que fuera competente.

* Recibo de haber satisfecho los derechos establecidos en la correspondiente Ordenanza Fiscal.

Artículo 15.

No se negará sepultura a ningún cadáver que sea presentado para su inhumación siempre que hayan sido cumplidos los trámites legales, se hayan satisfecho los derechos de enterramiento que señale la Ordenanza Fiscal Municipal y se cumpla inexcusablemente alguno de los siguientes requisitos:

— Ser natural de Hernani.

— Estar empadronada o empadronado en Hernani en el momento del fallecimiento.

— Tratarse de ascendientes y descendientes directos en primer grado de personas que se encuentren en alguna de las situaciones descritas en los apartados anteriores.

— Y los que considere oportunos la autoridad municipal.

Artículo 16. Exentas.

La inhumación de cadáveres de personas que carezcan de recursos económicos para sufragar las tasas y canon correspondientes, naturales de Hernani o fallecidas en el término municipal serán por cuenta y a cargo del Ayuntamiento siempre que queden acreditar fehacientemente dichas circunstancias.

Artículo 17.

El Ayuntamiento fijará todos los años el horario para realizar las inhumaciones atendiendo al mejor funcionamiento de servicio. Quien presente el cadáver deberá consultar al responsable del servicio la hora concreta de enterramiento con el fin de facilitar el desarrollo normal del servicio. No obstante, se inhumará en los siguientes horarios:

— De lunes a domingo: De 9:00h a 13:30h.

EK\CV GAO-I-2019-05349

Ostiraletan baimendutako lurperatzeak hurrengo egunean egingo dira.

— Errautsak gordetzeko ekitaldiak: Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:30era.

II. KAPITULUA. GORPUZKIAK HILOBITIK ATERATZEA, LEKUZ ALDATZEA ETA MURRIZTEA

18. artikulua.

Gorpuak edo gorpuzkiak hilobitik atera daitezke lekuz aldatu eta hilerrian bertan berriz hilobiratzeko nahiz beste leku batera eramateko.

Gorpuak hilobitik ateratzeko eta lekuz aldatzeko Udalaren baimena beharko da eta, hala behar den kasuetan, osasun eta epai agintariena ere bai.

Hilobitik ateratzeko eta lekuz aldatzeko, unean-unean indarrean diren sanitate arauak errespetatuko dira.

19. artikulua.

Gorpuzkiak hilobitik ateratzeak hildakoaren oinordekoen edo ingurukoen eskariz egingo da, eta holakorik ez baldin badago, hilobiratze-eskubidearen titular den beste edozeinen eskariz.

Gorpuzkiak hilerri barruko beste leku batera eramateko ere adostasuna eskatuko zaio lurperatze-eskubidearen titularrari edo ordezkariari.

20. artikulua.

Gorpuak edo gorpuzkiak hilobitik ateratzeko agiri hauek aurkeztu behar dira:

— Eskaera-orria, errolda publikoan jasotzeko datuekin. Horrekin batera oinordekoen edo inguruko pertsonen baimen espresua ere aurkeztuko da.

— Lurperatuko den lekuaren titularraren baimena, hilerri barruan lekualdatu behar bada.

— Osasun agintarien baimena, udalerritik kanpora eraman behar bada.

— Dagokion ordenantza fiskalean ezarrita dauden eskubideen ordain-agiria.

21. artikulua.

— Hildako baten izenean dagoen panteoi batean sartutako gorpu edo gorpuzkien lekualdaketa baimentzeko, aldez aurretik panteoriaren titulartasunaren aldaketa eskatu beharra dago.

— Lekualdaketak egiteko, gorpuzkiak poltsa edo kaxa batean sartuko dira, hilerri barruko beste leku batera eraman behar badira; edo gorpuzkien kutxa batean, hilerritik kanpo eraman behar badira.

22. artikulua. Gorpuzkiak murriztea.

Gorpuzkiak murriztea honi deritzo: Gorpuzkiak errauts-kutxa edo poltsa txikietan sartu eta lurperatze-unitate beraren barruan nahiz espresuki horretarako den unitate batean uzteari. Lurperatze-unitatearen edo hilerriaren edukiera handitzearren egiten da.

Izen bera ematen zaio gorpuzkiak hezurtegi orokorrera eramateari.

Gorpuzkien bilketa eta murrizketa udal zerbitzuek egingo dute, lurperatze-unitatearen titularraren ordezkariak eskatuta, edo udalak bere kabuz erabakita, emakida-epea bukatzen denean. Batean zein bestean interesdunak dagokion tasa ordaindu beharko du.

Salbuespeneko egoeraren bat gertatzen bada, edo instalazioen okupazio-maila handia bada, Udalak bere kabuz erabaki dezake gorpuzkiak murriztea.

Los enterramientos autorizados en viernes, se realizarán al día siguiente.

— Las cenizas se depositaran de lunes a viernes de 9:00h a 13:30h.

CAPÍTULO II. EXHUMACIONES, TRASLADOS Y REDUCCIÓN DE RESTOS

Artículo 18.

La exhumación de cadáveres o restos puede efectuarse para su traslado y reinhumación dentro del mismo cementerio o para su conducción a otro lugar.

Toda exhumación y traslado se realizará con la autorización del Ayuntamiento y la de las autoridades sanitarias y judiciales correspondientes en los casos en que sea necesario.

Las exhumaciones y traslados se realizarán respetando la normativa sanitaria vigente en cada momento.

Artículo 19.

Las exhumaciones se realizarán a solicitud de las personas herederas o allegadas de la persona fallecida,a la que pertenecieren los restos, y a falta de éstas a solicitud de cualquier titular del derecho funerario.

En el caso de que se trate de un traslado dentro del cementerio también se exigirá el consentimiento de la titularidad o representante del derecho funerario del lugar de destino.

Artículo 20.

La exhumación requiere la presentación de los siguientes documentos:

— Impreso de solicitud con los datos exigidos para su incorporación al Registro Público, a la que se acompañará constancia del consentimiento expreso de los y las herederas o allegadas.

— Autorización de la titularidad del lugar de destino, en el caso en que se trate de un traslado dentro del cementerio.

— Autorización de la autoridad sanitaria si se va a trasladar fuera del municipio.

— Recibo de haber satisfecho los derechos establecidos en la correspondiente Ordenanza Fiscal.

Artículo 21.

— Para autorizar el traslado de un cadáver o restos depositados en un panteón, cuyo título figure a nombre de una persona fallecida, se deberá solicitar previamente el cambio de titularidad del panteon.

— Los traslados deberán realizarse en bolsa o caja de restos en el caso de tener como destino el mismo cementerio o, en caja de restos en el caso de que el destino sea fuera del cementerio.

Artículo 22. Reducción de restos.

La reducción de restos consiste en la operación mediante la que los restos cadavéricos se depositan en unas urnas, cajas o bolsas de pequeñas dimensiones dentro de la misma unidad de enterramiento o en una específica para tales fines, a fin de aumentar la capacidad de la unidad o del cementerio.

Recibe igual denominación la operación mediante la que los restos cadavéricos se depositan en el osario común.

La reducción de restos se realizará por los servicios municipales a solicitud del representante de la titularidad de la unidad de enterramiento o de oficio al finalizar el periodo de concesión, siempre a costa del interesado que abonará la correspondiente tasa.

Si se dieren excepcionales circunstancias o el alto nivel de ocupación de las instalaciones así lo requieran, el Ayuntamiento podrá acordar de oficio la reducción de restos con carácter general.

EK\CV GAO-I-2019-05349

23. artikulua. Higiene eta sanitate neurriak.

— Udako hilabeteetan hilobitik ateratzeko lanak aldi batez bertan behera utzi ahal izango dira, agintari judizialek agindutakoak izan ezik.

— Hilobitik ateratzeko lanak egiteko garaian, kasu bakoitzari dagozkion higiene eta sanitate arauak bete behar dira; halaber, lan-osasunaren eta lan-arriskuen prebentzioaren arloko araudiak bete behar dira. Gorpuak edo gorpuzkiak hilobitik ateratzeko ardura duten langileek eskularru gogorrak, maska, botak eta babes-arropa berezia erabiliko dituzte.

24. artikulua.

Gorpuak eta gorpuzkiak hilobitik ateratzeko lanak, lekuz aldatzekoak eta murriztekoak hilerriko langileen lan-ordutegiaren barruan egingo dira; ordutegi hori, ahal izanez gero, bat etorriko da bisitari gutxien dagoen orduekin. Eta, osasun-ikuskatzailea bertaratu behar izanez gero, hilerriko arduradunarekin batera finkatuko da.

III. KAPITULUA. BAIMENA

25. artikulua.

Eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren Udalak baimena emango du. Hona hemen baimenean agertuko diren datuak:

— Hildakoaren izen-abizenak.

— Heriotzaren data eta lekua eta hildakoaren sexua.

— Eskatzailearen izen-abizenak eta hildakoarekiko harremana.

— Egin beharreko zerbitzu mota (hilobiratzea, hilobitik ateratzea edo lekuz aldatzea).

— Hilobiratzeko, hilobitik ateratzeko edo lekuz aldatzeko lekua.

Hilerriaren arduradunari baimenaren hiru ale emango zaizkio, agiri guztiak behar den bezala daudela frogatze aldera eta egin beharreko lanak (hilobiratzea, hilobitik ateratzea edo lekuz aldatzea) egin daitezkeela adierazte aldera. Hilerriko langileak baimenaren jatorrizko alea izenpetu eta udaletxera bidaliko du, egin beharreko zehatz-mehatz bete duela frogatzeko eta dagokion erregistro liburuan jasotzeko. Beste ale bat sinatua senitartekoei emango die eta hirugarrena udal bulegoetan artxibatuko da.

26. artikulua.

— Ez da gorpuak hilobitik ateratzea baimenduko eskaera behar bezala egin ez bada eta 19. artikuluan adierazitako pertsonek baimendu ez badute, salbu eta agintari eskumendunek agintzen badute.

— Lurperatzeen kasuan eskakizun hori ez da bete beharrik izango baldin eta lurperatuko beharreko pertsona lurperatze-eskubidearen titularra baldin bada. Hala baldin bada, udalak lurperatze-eskubidearen eskualdaketa egin dadila eskatuko du.

— Gorpua non lurperatu behar den erabakitzeko orduan eztabaidarik sortzen baldin bada eta, denbora kontua dela-eta, udalak ezin badu behin betiko erabakirik hartu, horma-hilobi batean hilobiratu da behin-behingoz. Auzia erabakita gelditzen denean, udalak ebazpen irmoa emanda, gorpua behin betiko hilobira eramango da, hilerrian bertan lekuz aldatu beharrekoa baldin bada.

— Behin betiko hilobiratzea beste hilerri batean egitekoa bada, aldez aurretik gorpua baltsamatu eta osasun-agintarien baimena eskuratu beharko da.

Artículo 23. Medidas de higiene y sanidad.

— En los meses estivales podrán ser suspendidos temporalmente las exhumaciones, con excepción de las ordenadas por la autoridad judicial.

— Toda exhumación deberá realizarse siguiendo las normas higiénicas y sanitarias adecuadas a cada caso, debiéndose cumplir la normativa en materia de salud laboral y prevención de riesgos laborales. Los empleados encargados de hacer las exhumaciones usarán guantes resistentes, mascarillas, botas y ropa específica de protección.

Artículo 24.

Las exhumaciones y traslado de cadáveres, restos y reducción de restos se efectuarán dentro del horario laboral del personal del cementerio, procurando que coincida con el de menor asistencia de público al cementerio, y si hubiera de intervenir la inspección de sanidad, se fijará dicho horario conjuntamente con la persona responsable del Cementerio.

CAPÍTULO III. AUTORIZACIÓN

Artículo 25.

Previa presentación de la documentación requerida, el Ayuntamiento expedirá la correspondiente autorización en la que se harán constar los siguientes datos:

— Nombre y apellidos del/de la fallecido/a.

— Fecha de defunción, lugar de fallecimiento y sexo del fallecido/a.

— Nombre y apellidos del/de la solicitante y relación con el/la fallecido/a.

— Tipo de servicio a efectuar (inhumación, exhumación o traslado).

— Lugar de la inhumación, exhumación o traslado.

Se remitirá la correspondiente autorización triplicada al responsable del cementerio como justificación de que la documentación está en regla y de que procede la inhumación, exhumación o traslado. El personal del cementerio devolverá al Ayuntamiento el ejemplar original de la autorización debidamente firmado, como justificante de su exacto cumplimiento, y a efectos de su anotación en el Libro Registro correspondiente. El duplicado debidamente firmado será devuelto a los familiares, y el triplicado quedará archivado en las oficinas municipales.

Artículo 26.

— No se autorizará ninguna exhumación que no sea solicitada en las condiciones y con el consentimiento de las personas señaladas en el artículo 19, salvo las ordenadas por las autoridades competentes.

— En el supuesto de las inhumaciones se exceptúa de la exigencia de autorización cuando se trate del enterramiento del propio titular del derecho funerario, en cuyo caso el Ayuntamiento instará a que se realice la transmisión del derecho funerario.

— Cuando se plantee la controversia sobre el lugar en que debe ser inhumado el cadáver y dada la premura de tiempo el Ayuntamiento no pueda adoptar una decisión definitiva se procederá a su inhumación en un nicho provisional. Dirimido el conflicto mediante resolución municipal firme se procederá al traslado a su sepultura definitiva si fuere en el mismo cementerio.

— Si se pretende que la sepultura definitiva sea en otro cementerio deberá haberse procedido al embalsamado previo del cadáver y obtener la correspondiente autorización de las autoridades sanitarias.

EK\CV GAO-I-2019-05349

— Aldiz, eztabaida gorpuzkiak hilobitik atera edo murriztu behar den kasuren baten inguruan gertatuz gero, ez da behinbehingo neurririk hartuko, gauzak dauden bezala utziko dira behin betiko ebazpena eman arte.

— Titulua sozietate, fundazio edo komunitate erlijioso edo ospitalarioren baten izenean emana baldin badago, hilobiratzea egin ahal izateko egiaztatu beharko da hilobiratu beharreko gorpua komunitate horretako kide edo langileren batena dela edo bertan babesean hartutako norbaitena dela.

III. TITULUA

LURPERATZE-ESKUBIDEAK

I. KAPITULUA. IZAERA ETA EDUKIA

27. artikulua. Definizioa.

1. Lurperatze-unitateak edo hilobi, partzela, panteoi, horma-hilobi edo hezurtegiak erabiltzeko lurperatze-eskubidea sortzen da lurperatze-unitate bakoitzerako titulua eman eta dagokion tasa ordaintzen denean.

2. Lurperatze-eskubideak haren titularrari ahalmena ematen dio hilerrian izendaturiko lurperatze- unitatea edukitzeko eta erabiltzeko, tituluan adierazitako epean.

Barne hartzen ditu lurraren erabilera eta gorpuak edo gorpuzkinak hilobiratzeko, zaintzeko edo gordetzeko egindako eraikinak, lursaila edo lurperatze-unitatea beste edozertarako erabiltzerik izango ez dela.

3. Lurperatze-eskubidea eman ahal izango da gorpuak hilobiratzeko nahiz gorpuzkiak edo errautsak gordetzeko.

28. artikulua. Xedea.

Lurperatze-eskubidea honako hauetan egon daiteke:

— Lurperatze-eskubidearen onuradunak unean ezartzen diren baldintzak betez panteoiak eraiki ahal izango dituen lursailetan, unean.

— Familia-panteoietan.

— Gorpuzkien horma-hilobietan.

— Erabilera komuneko horma-hilobietan.

— Kolunbarioetan.

29. artikulua. Titulartasuna.

— Hernaniko herritar oro da lurperatze-eskubidearen titular, hilobiratzeko edo gorpuzkiak edo errautsak gordetzeko modalitateren batean (28. artikuluan aipatu dira).

— Udalerrian jaio bai baina bertan bizi ez direnek partzelak edo familia-panteoiak emakidan emateko deitzen diren prozedura publikoetan parte hartzeko eskubidea izango dute.

— Lurperatze-eskubideak udal jabari publikoko ondasunen erabilera arautzeko xedapenekin bat etorriz emango dira. Partzelen eta familia-panteoien emakidak enkante bidez esleituko dira.

— Lurperatze-eskubidea lurperatze-unitate bakoitzerako emango da:

* Pertsona fisiko baten izenean.

* Bi ezkontideen izenean, izatezko bikotearen izenean edo 5 urteko elkarbizitza justifikatuta dutenen izenean, dena dela ere lehen eskuratzearen uneko erregimen ekonomikoa.

* Familia-lotura duten bi pertsonen izenean.

— Si la controversia se produce con ocasión de la exhumación o reducción de restos los restos no se adoptará ninguna medida provisional, manteniéndose la situación de hecho hasta la resolución definitiva.

